

gkz berdea

1.zk. 2014ko urtarrila

“Neurtzen ez dena ez da hobetzen”. Goiburutzat zuen esaldi horrekin jaio zen orain dela hiru hilabete gkz berdea, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak hiru hilean behin aterako duen aldizkaria, non fakultateak sortutako hondakinen kantitateak eta paperaren kontsumoaren datuak argitaratuko diren.

gkz berdearen 0 zenbakian aurreratu bezala, hiru hileroko kontsumo datuez gainera, aldizkariak baditu hainbat atal ere, eta helburu nagusia da gogoeta egitea gure eguneroko ohituren gainean eta denok fakultate iraunkorrago bat lortzen lagundu dezagun.

Fakultatearen kontsumo datuak

Hiru hileko datuak

PAPERA (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

URRIA	AZAROA	ABENDUA
32.500 unitate	30.000 unitate	28.500 unitate

INPRIMAGAILUETAKO KARTUTXOAK (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

Inprimagailuetako kartutxoak	6 unitate
------------------------------	-----------

HONDAKINAK (Fakultatea)

	URRIA	AZAROA	ABENDUA
PAPERA	569,6 kg	403,2 kg	432 kg
PLASTIKOA	51,5 kg	38 kg	37,5 kg

Kg = kilogrameak (litro 1 paper = 0.32 kg eta litro bat plastiko 0,05 kg)

Urteko datuak

2013ko kontsumo datuak ditugu, aurreko urtekoekin konparatu ahal direnak (lehenengo aldizkarian argitaratu genituen):

	2012	2013	ALDEA
PAPERA	453.000 unitate	325.000 unitate	😊 - 28,8%
Inprimagailuetako kartutxoak	56 unitate	24 unitate	😊 -57,2 %
TONERRA	22 unitate	14 unitate	😊 - 36,4%
PAPERA	*	5043,2 kg	*
PLASTIKOA	*	430 kg	*

Hondakinak

* Hondakinak 2012ko uztailaz geroztik hasi ziren kontatzen

2013ko datuak oso positiboak izan dira, paperaren kontsumoa (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza) % 28,8 gutxitzea lortu baita. Gainera, kontuan hartu behar da erabiltzen den papera paper birziklatua dela eta ingurumenaren arloko zigilu zorrotzenak ditu (ikus 0 aldizkaria).

Paper kontsumoa ez ezik, inprimagailuetako kartutxoena ere gutxitu da % 57,2 denon praktika egokiaren ondorioz eta banakako inprimagailu batzuk ere kendu direlako. Inprimagailu nagusiek erabilitako toner kopurua ere 2012koa baino gutxiagoa izan da (% 36,4 gutxiago).


Ez ditugu 2012ko hondakinen datuak, kontabilizazioa urte horretako uztailean hasi baitzen.

Laburbilduta, 2013an berebiziko urratsak eman ditugu ingurumenarekiko ezarritako helburuak lortzeari begira. Beraz, zorionak denoi!

Esanak esan, badugu oraindik ibilbide luzea egiteko... Baina jarrai dezagun horrela!

Paperik gabeko eguna

Abenduaren 13an "Paperik Gabeko Eguna" ospatu genuen. Jardunaldi horren helburua zen paperaren erabileraz pentsaraztea kontsumoa murrizarazteko.



Beste jardunaldi batzuekin egiten den bezala, **Autorik gabeko eguna** delakoan, esaterako, ahal zen neurrian, abenduaren 13an, ostirala, paper zuriaren erabileraren kontsumoa murriztea izan genuen xede.

Orientazio gisa, jardunaldi horretan paperaren kontsumoaren zer-nolako murrizketa izango zen ebaluatzeko, kontuan hartu zen, lehenik, 13a baino lehenagoko hiru ostiraletan zenbat fotokopia egin ziren Atezaintza, Dekanotza eta Idazkaritzako inprimagailu nagusietan:


EGUNA	2013/11/15	2013/11/22	2013/11/29	BATEZ BESTEKOAK (aurreko hiru ostiraletan)	PAPERIK GABEKO EGUNA
FOTOKOPIAK	783	945	1345	1024	609

Paperik gabeko egunean, % 40,4 fotokopia gutxiago egin zen aurreko 3 ostiraletan egindakoaren batez bestekoarekin konparatuta.

Kopuru horiek ikusita, eta kontuan hartuta egun horretan denok hartu genuela parte, ekimenari emandako erantzuna oso positibotzat jo daiteke. Ekoscan taldetik zure parte hartzea eskertu nahi dugu, zu gabe ez baikenuen lortuko.

Paperik Gabeko Eguna baliagarri izan da frogatzeko helburu jakin bat ezarri eta horrekiko kontzientzia hartzen dugunean gai garaela papera modu arrazionalagoan erabiltzeko.

Lor dezagun denon artean, ahal den neurrian, urteko egun guztiak PAPERIK GABEKO EGUNA izan daitezen! Eskerrik asko!



Ba al zenekien...?

Tona bat paper birziklatuta:

- 35.078 litro ur aurrezten da.
- 2,78 m³-ko espazioa aurrezten da zabortegetan.
- Berotegi efektuko gas emisioetan 1,1 tona CO₂ baliokide aurrezten da.

Munduko baso tropikalen erdia moztu edo degradatu da. Ordubetero, gutxienez 4.500 hektarea baso desegiten da motozerrekin, aihotzekin, erreta edo hondeamaginekin.

Munduko baso galera garbia urtean 7,3 milioi hektareakoa dela kalkulatu da.

Munduko paper kontsumoa % 400 hazi da azken 40 urteetan.

Moztutako zuhaitzen % 35 papera fabrikatzeko erabiltzen dira.

Munduan, 1,6 milioi pertsonak bizirik irauteko behar dituzten baliabide guztiak edo erdiak basoko produktuak dira.

Munduko populazioaren %22k (EEBB, Europa eta Japonia) paperaren %72a kontsumitzen du. EEBBak, munduko populazioaren %5arekin, paperaren herena kontsumitzen du.

Afrikako Sahara hegoaldeko egurra zuhaitzen urteko batez besteko hazkuntza baino % 30-200 azkarrago kontsumitzen da. Horrek defizit handia dakar egur baliabideetan eta espezieen habitatean.



Deforestazioaren ondorioz, 28.000 espezie desagertu daitezke datorren mende laurdenean

Pulpa eta paper industria da Kanadan eta Estatu Batuetan aire, ur eta lur gehien kutsatzen duten industrietan hirugarrena; 100 milioi kg kutsatzaile toxiko baino gehiago igortzen du urtero.

Zelulosa eta paper industriak beste edozein industriak baino ur gehiago erabiltzen du tona bat produktu ekoizteko.

Mundu mailan, pulpa eta paper industria da energia gehien kontsumitzen duten industrietan bosgarrena (munduko energia kontsumo guztiaren %4)

Nitrogeno dioxidoa (NO₂), sulfuro dioxidoa (SO₂) eta karbono dioxidoa (CO₂) igortzen dira papera fabrikatzerakoan. NO₂ eta SO₂ dira euri azidoaren eragile nagusiak, eta aldaketa klimatikoa eragiten duen berotegi efektuko gas bat da CO₂.



Datu eniturria:

[Http://www.greenpeace.org/espana/es/Blog/libro-de-papel-o-electrnico/blog/32722/](http://www.greenpeace.org/espana/es/Blog/libro-de-papel-o-electrnico/blog/32722/)

[Http://www.epa.gov/osw/conservation/materials/paper/faqs.htm](http://www.epa.gov/osw/conservation/materials/paper/faqs.htm)

[Http://www.epa.gov/osw/conservation/materials/paper/basics/](http://www.epa.gov/osw/conservation/materials/paper/basics/)

[Http://www.facingthefuture.org/IssuesSolutions/Deforestation/tabid/182/Default.aspx](http://www.facingthefuture.org/IssuesSolutions/Deforestation/tabid/182/Default.aspx)

[Http://www.curiosityaroused.com/environment/10-scary-deforestation-facts-we-should-all-be-concerned-about/](http://www.curiosityaroused.com/environment/10-scary-deforestation-facts-we-should-all-be-concerned-about/)

Eta...zer egin dezaket nik?

Hona hemen ideia erraz batzuk papera eta tonerra/tinta aurrezteko:

UPV/EHUren posta elektronikoaren izenpetze korporatiboak banda beltz bat du (ikus irudia) eta inprimatzerakoan toner/tinta pila gastatzen du. Mezuren bat inprimatu behar baduzu, saiatu behar duzu inprimatu baino lehen editatzen, banda hori kentzeko eta, horrela, ez da sinadura aterako.




Ez inprimatu dena automatikoki. Gorde artxiboak ordenagailuan, ez baitago dokumentu guztien kopia gorde beharrik. Erabili gehiagotan eskanerra artxibatzeko.



Kutxak jarri dira ikasgeletan, alde bakarraz erabilitako orriak bertara botatzeko. Orriok erabili ahal dituzu apunteak hartzeko edo zuri balio ez dizuten orriak sar ditzakezu kutxa horietan beste ikasleren batek erabiltzeko.

Birbidali unibertsitatearen barne postako gutun azalak. Behin baino gehiagotan erabili ahal dira gutun azal horiek; beraz, erabili gutun azal berbera dokumentuak bidaltzeko eta ez hartu beste gutun azalik.



Berrikuntza: kafe makinak=Prezio berriak

Aurrerantzean, fakultateko kafe makinetan edaria eskatzen duen lagun orok bere katilua ekartzen badu, 5 zentimo merkeago aterako zaio. Hortaz, 0,30 euroko kafea 0,25ean aterako zaio.

Egon zen 2012an aipatutakoaren antzeko beste ekimen bat. Fakultateko irakasle eta ikertzaileei eta Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalari katilu bana oparitu zitzaizkien plastikozko edalontzirik ez erabiltzeko.

Murritzitu plastikozko hondakinak; erabil ezazu zure katilua!

Nola erabili “edalontzirik gabeko aukeraketa” kafe makinetan:

1. Jarri katilua
2. Sartu txanponak
3. Markatu “edalontzirik gabe”
4. Egiaztatu pantailan “edalontzirik gabe” jartzen duela
5. Aukeratu edaria

Mesedez ez inprimatu aldizkari hau, espresuki pantailan ikusteko eginda dago. Aurrez dezagun toner/tinta eta papera!

Hemen proposatutako ideien bat gauzatu nahi baduzu eta ez badakizu nola egin, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baldin badaukazu, jar zaitez gurekin harremanetan honako helbide elektroniko honetara zuzenduta:

gkz.ekoscan@ehu.es